



**B ERAKO JARDUERA SAILKATUA INSTALATZEKO JARRAIBIDEAK
LIZENTZIARI LOTUTA EZ DAGOEN JARDUERA**

B ERAKO JARDUERA INSTALATZEKO BALDINTZA OROKORRAK

B ERAKO jarduerak ondokoak dira: JARDUERA-LIZENTZIARIK BEHAR EZ DUTENAK, baina bai, ordea, JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA.

Jarduera horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legea aldatzen duen apirilaren 23ko 7/2012 Legearen II. Eranskinaren B) atalean agertzen diren jarduerak dira.

B ERAKO jarduerak ezin izango dira hasi titularrak JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA hasi arte.

B.- LEHENENGOA: Interesdunak jarduera hori burutzeko egin beharreko obrak egin beharko ditu. Horretarako, lehenengo behar den lizentzia eskatu eta eskuratu beharko du: OBRA NAGUSIKO LIZENTZIA edo OBRA TXIKIKO LIZENTZIA.

Lizentzia horiek derrigorrezkoak dira edozein obratarako, eraispenetarako eta era guztietako instalazioetarako; hau da: Trenkadak eta hormak botatzeko, estaldurak, beheak eta obra-elementuak pikatzeko, zuloak, leihoak eta abar egiteko, trenkadak altxatzeko eta edozein materialetako zatiketak egiteko (kartoiz, igeltsua, manparak, adreilua...), zarpituak eta luzituak eta abar. Fatxadetan zuloak egitea, instalazio elektrikoak, -frigorifikoak, gasezkoak, argizkoak, aireztatzekoak, aire egokiturakoak, berokuntzakoak, sukaldeetakoak, tximinietakoak eta abar.

Horien gainera, beste instalazio batzuek ere baimena behar dute: fatxadetako, toldoetako eta abarreko errotuluek, pasabideek eta eremu publikoa erabiltzeak.

B. BIGARRENA: JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA FORMALIZATZEA.

(Formalizazioa Udalari ondoko agiriak aurkeztuta egiten da)

B.- JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAREN barruan ondokoa dago:

B.1.- INPRIMAKIA: JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAREN inprimaki normalizatua, jardueraren titular arduradunak sinatuta.

B.2.- MEMORIA: JARDUERAREN INGURUMEN-MEMORIA DESKRIBATZAILEA

- MEMORIAK jarduera hori deskribatu behar du, testua eta planoak erabiliz. Horren edukiak ondoko dekretuan daude zehaztuta: 165/1999 DEKRETUA, martxoaren 9koa, otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena. (EHAA. 59 zk. 1999.03.26)
- Jarduera horrek ingurumenean eta pertsona zein ondasunen segurtasunean izan litzakeen eragin eta kalteak hartu behar ditu kontuan eta arlo hauetakoak zehaztu: Zaratak, emisioak atmosferara, usainak, hondakin uren isurketak, hondakinen kudeaketa, suteen kontrako babesak eta babes industriala.
- MEMORIAK zehaztu egin behar ditu jarduera horrek ingurumenean eta pertsona zein ondasunen segurtasunean izan litzakeen eragin eta kalteetarako hartuko diren neurri zuzentzaileak, eta kontuan izanda jarduera mota horri aplikagarria zaion legedia bete behar dela.
- Behar izanez gero, MEMORIAK deskribatu egin beharko du Irisgarritasun Legea kontuan izanda instalazioak duen betetze- eta egokitze-maila.

B.3.- EGIAZTAGIRIA: Teknikari gaituak sinatutakoa eta ondokoa egiaztatzen duena:

- EGIAZTAGIRIAK aipatu egingo du jarduera hori B ERAKO jarduera sailkatua da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legearen arabera (apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatzen duena).

1/ Ez da derrigorrezkoa egiaztagiria hau teknikariaren Elkarte Ofizialak bisatzea. Bisatu ezean, teknikaria kolegiatuta dagoela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da (teknikariari dagokion Elkargo Ofizialak sinatuta).



- EGIAZTAGIRIAk aipatu egingo du jarduera edota instalazioak berarekin batera doan memoria teknikoarekin, aurkezten diren gainerako dokumentu teknikoekin eta, egonez gero, eraikitze-proiektuarekin bat datozela.
- EGIAZTAGIRIAk aipatu egingo du instalazioak, Irisgarritasun Legea kontuan izanda, bete egiten duela eta horri egokituta dagoela.
- **EGIAZTAGIRIAk** aipatu egingo du jarduera horrek ingurumenaren arloan eta pertsona zein ondasunen segurtasunaren eremuko baldintza guztiak betetzen dituela; horrez gainera, horietan izan litzakeen eragin eta kalteetarako hartu diren neurri zuzentzaileak eta, behar denean, ingurumenaren eragineko adierazpenean jasota daudenak ere bai. **EGIAZTAGIRIAK zehatz aipatuko du ezarri eta bete den neurri bakoitza.**

B.4.- JARDUERA SAILKATUAREN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAREkin batera aurkeztu behar diren EGIAZTAGIRI ETA DOKUMENTUAK.

- Erakundeekin tramitatu behar diren **baimenak, egiaztapenak, zerbitzua ematen hasteko jakinarazpenak edo antzeko beste dokumentu batzuk.**
 - Instalazio elektrikoa martxan jarri dela erakusten duen egiaztagiria, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari aurkeztutakoa
 - Arlo hauetako araudiei dagokien dokumentazioa: sanitarioa, hondakinen kudeaketa, suteen kontrako instalazioak, produktu kimikoen bilketa, erregaien bilketa, emisioak atmosferara eta abar.
 - Hala behar izanez gero, ondoko instalazioek zerbitzua ematen hasteko bete behar den araudia betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak: instalazio-frigorifikoak, karga-jasogailuetakoak eta igogailuetakoak, UBSa sortzeko instalazioak, aireztatzekoak, aire egokiturakoak eta berokuntzakoak.
 - Autobabeserako araudia betetzen dela erakusten duen dokumentazioa.
 - Zaratzen arloko araudia betetzen dela erakusten duen dokumentazioa.
- **Janariak eta edariak saltzen, erakusten, egiten edota kontsumitzen diren jardueren kasuan:**
 - Higiene eta osasuneko txostena (EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN PUBLIKOKO URIBE-KOSTA ESKUALDE BULEGOAK egina). (944315171)
- **50 ikasletik gorako ikastetxeen kasuan Autobabeserako plana** aurkeztu behar da eta, horrez gain, *277/2010 DEKRETUAN, azaroaren 2koa, zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabes betebeharrak arautzen dituena, larrialdiei aurre egitekoan ezarrita* dagoena bete behar da.
- **Ur zikinen udal-sarearekin loturarik ez duten instalazioen kasuan:**
 - Behar denean, isurketak egiteko UR AGENTZIAri egindako baimen eskariaren kopia.
- **Ur zikinen udal-sarearekin lotura duten instalazioen kasuan:**
 - Behar denean, isurketa egiteko BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOARI egindako baimen eskariaren kopia.
- **Ostalaritza jarduera eta txokoen kasuan:**
 - Akustika gaietan aditua den laborategi batek egindako egiaztagiria, hain zuzen ere indarrean dagoen araudiak ezarrita dituen mailak betetzen direla egiaztatzen duena, hau da, ondoko parametroetan:
 - Lokalaren isolamendua aire bidezko zaratetarako (ARROSA) > 65, ENACek onartutako laborategiak emanda.
 - Inpaktuzko zarata estandarizatuaren presioa gehienez: 40dB(A)
 - Musika emititzen duen ekipoak (telebista barne), baldin eta lokalak hori badauka, 50 vatiotik beherako potentzia efikaza dauka, lau ohmioko karga estandar baterako.
 - Emisio akustikoa mugatiko duen gailua jartzea, lokalaren edozein lekutan maila 75db(A) izateko; eta eraginik handiena jasotzen duen etxebizitzaren logeletan, berriz, <25dB(A) izateko.
 - Edukierak 300 pertsonatik beherakoa izan behar du.
 - Asegurua kontratatu dela egiaztatzen duen agiria, hain zuzen ere Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko10/2015 LEGEari jarraituta.
 - Behar denean, autobabeserako araudia betetzen dela erakusten duen dokumentazioa.
- **Lurzorua kutsa lezaketzen jarduerak izan dituzten lekuen kasuan:** leku horri dagokion dokumentazioa aurkeztu behar da; 1/ lurzoruaren kalitatearen gaineko aitorpena; 2/ Lurzoruaren gaitasunaren aitorpena, 3/ aurreko bietako edozein tramitatu behar ez izateko salbuespena egiaztatzen duen agiria.
- **Burutuko den jarduera kontuan izanda, aurkeztu beharreko beste batzuk.**

B.5- EGIAZTAGIRIA, Udal tasak ordaindu direla erakusten duena.



B.6- Foru Ogasunean Jardueren Zentsuan Alta eman izanaren agiriaren FOTOKOPIA (036 eredu, eta bertan azalduta jardueraren azalera zein den).